

Arrasate

1997ko
maiatzak 30
365. zenb.

ROCK

&

arrasate

Azken bi urteotan musika talde berriak sortu dira, doinu desberdinak ekarriz. Euren lana ezagutzera emateko asmoz, gainera, hainbat talde animatu da maketa grabatzera. Egun hemezortzi rock talde daude herrian. Batzuk kontzertuak ematen dabilta, beste batzuk proiektuan daude oraindik.



EZ DAGO KONPARAZIORIK.



omu keramikak

Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka, 6 • Tel./Faxa: (943) 79 14 28 • ARRASATE
Erakusketa: Otalora, 1 behea • Tel.: 79 07 20 • ARRASATE

ERAIKUNTZARAKO MATERIALAK

Eta arlo emozionala zer?

Goizeko 10:30ak dira eta eskolako jolasaldian Nerea lurrera erori eta nigarrez ari da. Bere lagunak ez dira konturatu eta jolasean jarraitzen dute. Mikel Nerearengana hurbildu eta jeikitzen lagundu dio, gero aurpegira begiratu eta esan dio: "lasai, nik ere min hartu dut, hemen" eta

Mikelek belauna gorritua erakusten dio Nereari. Mikelek jarrera hau adieraztean besteek egiten ez dakiten zerbait egiten dakiela adierazi du. Hatch eta Gardner irakasleek esaten duten bezala, Mikel trebetasun sozialen hastapenetan dago. Aipatu bi irakasleok lau trebetasun sozial definitzen dute: taldeak antolatze-ko gaitasuna, pertsonen harremanetan jartzeko gaitasuna, soluziobideak aurkitze-ko gaitasuna eta



Matilde Sainz Osinaga

besteen sentipenak eta interesak susmatzeko gaitasuna.

Guztiok bi adimen-mota daukagu, bata pentsatzen duena eta bestea sentitzen duena. Bi adimen-mota hauek elkarri eragiten diote, eta biak gure bizitza mentala osatzen dute. Lehena, adimen razionala da, hausnarketarako balio zaiguna. Beste

adimen-mota, berriz, batzutan ilogikoa ere bada, adimen emozionala da. Gure gizarteak emozionala eta razionala bihotza eta buruarekin erlazionatu izan ditu. Inork ez du zalantzan jarriko bi

adimen-mota hauek garrantzitsuak direla pertsonaren orekarako. Baina biak landu edo ikas daitezke? Non eta nola?

Adimen razionala ikas daitekeenik ez du inork zalantzan jartzen eta familiaren, eskolaren eta gizartearen eginkizuna ere badela esango du.

Baina zer gertatzen da adimen emozionalarekin? Non lantzen da? Nori dagokio bere lanketa? Zer gertatzen da emozioak lantzen ez badira? Zer gerta dakiguke honen gabezia bagaude?

Azken urteotan hainbat ikerketa burutu da honen inguruan eta zenbait autorek, analfabetismo emozionalaz hitz egiten du. Autore hauen ustez, gabezi honek gatazka egoerak sortzen ditu gizakiarengan: agresibitatea, depresioa, drogen kontsumoa eta antzeko gaisotasun edo ezohiko egoerak. Hau dela eta, zenbait tokitan, dagoeneko, sentimenduei buruzko programak irakasten hasiak dira. Programa hauetan nork beraren sentimenduak eta besteenganakoak lantzen dira. Aurrera joanez, gaur egun zenbait lanetarako eskakizunen artean adimen emozionalarekin lotutakoak ere badira, hala nola, elkarlanean jarduteko gaitasunak, aldaketarako gaitasuna, komunikatzeko gaitasuna eta abar. Beraz, Mikelen ereduari jarraituz, baztertuta izan dugun emoziozko arloari benetan kasu egiten hasi beharko ginateke. ■

Baina zer gertatzen da adimen emozionalarekin? Non lantzen da? Zer gertatzen da emozioak lantzen ez badira?



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate
Komunikabideak) Otalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Behar-
do Kortabarna. **Kazetariak:** Maria Agirre, Ixaro Zubil-
laga, Maider Egües, Marian Porcel. **Publizitatea:** Kai-
tlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Adminis-
trazioa:** Ikerne Allube (Tel.: 79 02 26) **Disenua:** Goio
Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del
Campo, Iban del Campo, Ixaro Artola, Bixente Azka-
rate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor
Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gaztania Salla, ASA
taldea, Sabiñ Arrieta, Enako Allende, Bessaide M. E.,
Karmelo Urribarren, Fidel Berezibar, Bixente Pagoaga,
Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agornia, Jose
Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker
Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopi, Jon
Ozaeta, Birginita Urkiola, Jabi Luengo, Maite Barreña.
Banaketa arduraduna: Jasone Mendizabal-AED. (Tel.:
77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200
Lege-Gordailua: 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo
horizientatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubilla-
ga Ofisi).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esanena eta iritzien
erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper
birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Jon Ozaeta.

Mila esker: Ugutz, Nerea, Oihana, Urmare, Dorleta eta Beleni.



Arrasateko Udaleren
laguntzaz



Gipuzkoako Foru
Alduzkaren laguntzaz



Eusko Jaurlaritzako
Kultura
Sailaren laguntzaz

365. zenbaki honetan

1997ko maiatzaren 30ean

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen ..	10/12	Kulturaren txokoa ..	26/27
Irakurlea idazle	6	Txutxumutxuak.....	14/15	Azoka plaza	28/29
Inkesta.....	7	Asteko gaia	17/19	Ikusi eta entzun	33
Euren ikuspuntutik	8	Kirolak jokoan	20/22	Foto zaharra	34

Ikuspegia

Matilde Sainz Osinaga3

Euren ikuspuntutik

Iban Lizarralde8

Aurrez aurre

Imanol Etxeberria24/25

Kulturaren txokoa

San Juan jaietako kartelak.....26

Hogeita hamar galderatan

Mari Jose Gil30

Asteko gaia

Rock&Arrasate:

Talde eta martxa berriak17/19



Punk edo heavy
estiloek jarraitzaile
fidelak badituzte
ere, azkenaldian
talde berriak sortu
dira Arrasaten estilo
modernoagoak
ekarriz.

30

ostirala

■ ZINEA

Retorno del Jedi Alai zine-
man 7etan eta 10etan.

■ AITA MENNIREN KULTUR
ASTEA

Bideoa emanaldia: Ruta
Maya. Hizlaria: Patxi San-
chez Dehesa. Arratsaldeko
6.30etan Ospitaleko areto
nagusian.

■ MANIFESTAZIOA

Presoak Euskal Herrira
arratsaldeko 7.30etan Gesto-
rak antolatuta.

31

larunbata

■ ZINEA

Retorno del Jedi Alai zine-
man arratsaldeko 5etan. *El
escandalo Larry Flint* 7.30etan
eta 10etan.

■ JUBILATUEN EGUNA

Eguerdiko 12etan meza.
2etan bazkaria Musakolako
kiroldegian. Ondoren dan-
tzaldia.

■ ARRASATE
KIROL PROIEKTUAREN JAIA

Goizeko 10etan bizikleta
irteera Aramaiora goizeko
10etan Iturripetik. Arrasate
kirol proiektuko neskamuti-
lentsat eta euren gurasoentzat
antolatuta. 12etan kopa eta
dominen banaketa Iturripen.

■ AITA MENNIREN
KULTUR ASTEA

Bideo emanaldia: Mendi-
kate zuria. Hizlaria: Koke
Lasa. Arratsaldeko 6.30etan
Ospitaleko areto nagusian.

1

igandea

■ ZINEA

Retorno del Jedi Alai zine-
man arratsaldeko 5etan. *El
escandalo Larry Flint* 7.30etan
eta 10etan.

■ ZIKLOTURISTEN
IRTEERA

Ibilbidea: Arrasate, Arla-
ban mendatea, Gasteiz, Tre-
viño, Zaldiaran mendatea,
Gasteiz, Landa eta Arrasate.
114 kilometro. Irteera goize-
ko 8etan Monterrondik.

■ BARDEETARA MARTXA

Arrasateko EKiko kideak
X. Bardeetako Martxara joan-
go dira. Goizeko 8etan atera-
ko dira Portaloitik. Autoz joan
nahi izanez gero, hurbildu ber-
tara.

2


astelehena

■ ZINEA

El escandalo Larry Flint
Alai zine-
man 7etan eta
9.30etan.

■ AITA MENNI
KULTUR ASTEA

Bideoa emanaldia: Akon-
kagua: Andeetako jagolea.
Hizlaria: Joseba Ugalde.
Arratsaldeko 6.30etan Ospi-
taleko areto nagusian.

**MIKEL LASA, S.A.**
aseguru artekaritza

ASEGURU OROKORREN AGENTZIA

Zure familiaren segurtasuna, aurpegia erakus-
ten ez dizun norbaiten esku utziko zenuke?

EZ ERABAKI ZURE ETORKIZUNA TELEFONOZ

BANKINTEER
A G E N T E A

FINANTZA PRODUKTUAK

Inbertsio fondoak, Altxor Letrak, Epe jakine-
rako ezarpenak, Bonoak, Obligazioak eta abar.

HIPOTEKA MAILEGUAK

Maalako Errabala, 33 behea • 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: (943) 79 69 00 Faxa: (943) 77 10 74

3 asteartea

■ **ZINEA**

El escandalo Larry Flint
Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ **HITZALDIA
MONTERRONEN**

Gaia: Dibertsitate sexuala. Hizlaria: Arantxa Urkaregi, feminista eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea. Monterronen arratsaldeko 7etan. Emakumeen Asanbladak antolatuta.

■ **AITA MENNI
KULTUR ASTEA**

Antzerkia: *Bihartaldearen El fantasma de Cantervill* antzezlanaren arratsaldeko 6.30etan Ospitaleko areto nagusian

■ **EZKONTZAURREKO
TOPAKETAK**

Ezkontzaurreko topaketak ekainaren 2, 3, 4, 5 eta 6an. Bertara Eskoriatza, Aretxabaleta, Oñati eta Arrasateko ezkongai guztiak daude gonbidatuta. Topaketa Arrasateko Abade etxean izango da Iturriotz 43, arratsaldeko 8.30etan.

■ **PINTURA ETA
ESKULAN ERAKUSKETA
HARRESIN**

Ekainaren 8a arte Marcelino eta Esther Ruizen pintura eta eskulan erakusketa Harresi aretoan. Ordutegia: lanegunetan 6etatik 8ak arte. Larunbatetan eta jaiegunetan 12etatik 2ak arte eta 6etatik 8ak arte.

■ **IRUDI LEHIAKETARA
AURKEZTEKO EPEA
BUKATZEAR**

Ekainaren 2an

bukatuko da San Juan jailetako *Geu gara garra* materialetan erabiltzeko irudi edo marrazkitxo aukeratzeko lehiaketa. Edonork har dezake parte. Lanak zuribeltzean. *Geu gara garra* lema eta *San Juanak 97* testua jarri behar du. Lanak Gazte Bulegoan, Erdu AEKn edo AEDko lokalean aurkez daitezke.

■ **IKASTAROA**

Tiffanis lanparak egiteko ikastaroa Famili eta Gizarte Hezketarako zentroan. 9 orduko ikastaroa. Izena emateko epea zabalik dago. Horretarako lokalera zuzendu, (79 04 59).

■ **HOBEKUNTZA
GOLF IKASTAROA**

Ekainaren 14an eta 15ean Urturiko Izki golf zelaian eguerdiko 12etatik 2etara. Prezioa 5.000

pezeta Udal Kirol Zerbitzuetako bazkideentzat, gainontzekoentzat 6.000 pezeta. Izena emateko edo informazioa jasotzeko joan Musakolako kiroldegira (79 04 27).

■ **XIX. ORIENTAZIO
IBILALDIA**

Murruko Mendizale Elkarteak Euskal Mendizale Federazioaren 19. Orientazio ibilaldia antolatu du ekainaren 15erako. Probak goizeko 8.30etan eta 9.30etan hasiko dira. Bi ibilbide izango dira, bata luzea 15 kilometrokoa eta bestea motza 10 kilometrokoa. Parte hartzeko Federatu txartela behar da. Helmugarako kontrola eguerdiko 2etan itxiko da, beraz, beranduago heltzen diren taldeak kanporatuak izango dira. Parte hartzeko izen ematea Aretxabaletako Murruko egin behar da.

4 asteazkena

■ **AITA MENNIREN
KULTUR ASTEA**

Ospitaleko antzerki taldearen *Me comeré dos* antzezlanaren arratsaldeko 5etan areto nagusian.



■ **ARRASATE KIROL PROIEKTUAREN JAIA**

Ikasturteari bukaera emateko jai handia antolatu dute Arrasate Kirol Proiektukoek. Goizeko 10etan bizikleta irteera Aramaiora Iturripetik. Bertara Proiektuko ikasleak eta gurasoak joan daitezke. 12.30etan sari banaketa eta sorpresak Iturrieko kiroldegian.

ESKOLA POLITEKNIKOAN GOSE GREBAN

Gaur goizez eguraldi freskoa diagu Arrasaten. Jertserik lodienak soinean ditugula eta uzkuriturik Udalatxera so geudek. Udalatxeko zelai berdeak, zeru urdin eta hodei zuria beti bezain goxo eta dastagarri zeudek gure begientzat. Haize leun eta heze batek gure aurpegiak laztantzen dizkik. Masail eta sudur-puntak gorrituta dizkiagu; eguzki-izpiak lotsati iristen dituk gugana baina bihotzak bero-bero zeuzkeagu.

Egunari ongi-etorria ematen dion txalaparta doinu batek gure nagia esnatzen dizkik. Hotzez eta goseak geudek, baina nire lagunen begietan ilusioz ondo asetua dagoen begirada sentitzen diat: lanean hasi behar diagu; beste gose-greba egun bat gehiago zeukeagu aurretik.

Haurtxo jolaslariekin, marrazkiak, kartelak eta bertsoak dizkiagu egiten, umorea ez zaigula gosetzen; euskal kantak abesten, eta gure txalapartaren ohartzuna ahalik eta urrunen eramaten.

Bisitari dizkiagu ikasleak, langileak eta langabetuak; zahar nahiz gazte, gizon eta emakume malkoz eta irrifarrez; guztiak presoen alde!

Nekea diagu gorputzean, baina indartsu sentitzen gaituk ekinean. Laguntza badiagu, baina gehiago nahi diagu, gehiago behar diagu; bai baitzekiagu lortuko dugula, guztion artean lortuko dugula.

Gaueko iluntasunak estaltzen zigun zerua eta grebalariorik bakarti gelditzen gaituk.

Ateak itxi eta gure txokoa epel eta goxo girotzen diagu. Nik, lehiotik begiratu Euskal Herriko zerua ikus zezakeat. Nire lehioak ez dik barroterik. Hodei arteko izar nimitioen eta ilargiaren argiek aurpegian islatatzen zidatek, inguruko mendiak, abereak usaintzen dizkiat eta haizearen zurrur-murrur freskoa entzuten diat. Hik ere, ilargi-pek txoko ilun horretatik begira ezak kanpora eta jakin ezak ikusten ari haizen ilargi horren magalean badaudela hainbat lagun, hire alde, gure alde borrokatzeko prest.

Gauak badoaz egunen atzetik; zuek ez zatozte. Baina iritsiko duk, hik ere gurekin batean Udalatx eta Euskal Herri osoa begiratu, dastatu eta usainduko duken eguna. Irtsiko duk euskal preso guztiak ekarriko ditugun eguna.

Jo ta ke etxeratu arte!

EPko gose-grebalariak

ZURETZAT ERABILGARRIAK EZ DIREN ERRADIOGRAFIAK EMAN

Balio ez duten erradiografia bilketaren iazko kanpaina estatutalaren etekinak ikusi ondoren, apiriletik uztaila arte iraungo duen beste berri bati hasierara eman zaio.

Erradiografiak zidar-gatzak dituzte. Kutsakorra ez den prozesu baten bidez gatzok erreziklatuta lingoteetan funditu daitezke.

Norbanakoek eta profesionalek balio ez duten erradiografiak ematen dituzte, etxean eta artxiboetan pilaturik dituztenak lan honetan laguntzaile

diren botiketaren horretarako dauden kutxetan utziz.

Baliogabeko erradiografiak dira: irudi erradiologiko normal bat erakusten dutenak, hilda dauden pertsonenak, txar to ateratzen direnak, edota, arrazoi batengatik ezertarako balio ez ditugunak.

Erradiografiak dituzten zidar gatzekin ateratzen diren irabaziak oso osorik emango zaizkio "Farmacéuticos Sin Fronteras de España"-ri, ura garbitzeko, umeen gaisotasunak osatzeko eta oinarriko botikak dituzten botika-biltegien kudeaketarako dauden programei dirulaguntza emateko. Iazko kanpainaren helburua oinarriko botikak biltzea izan zen, aurtengoa ur edangarria lortzea. Ur edangarria lortzea, gizakia-oren osasunerako hain beharrezkoa izanik garapenbidean dauden herrialdeek duten arazorik larriena da. Ur kutsatua, urdail eta hesteetako gaisotasun askoren sortzailea da. Ura baldintza onetan lortaraztea da "Farmacéuticos Sin Fronteras"-ek osasunaren aldeko laguntza-prozesuaren barruan ematen duen lehen laguntza.

Lehenengo kanpainan 80.585 kilo erradiografia bildu ziren, guztira 8.687.752 pezeta lortu zirelarik. Diru kopuru hau Peruko Caritasi, eta, Zaire, Sahara, Kuba eta Sierra Leonara bidali zen.

Ekintza hau aurrera eramanez, ingurunea babesten da behar den moduko erreziklari barik botatzen diren erradiografiaren eragin kutsakor eta kaltegarriak indar barik utziz.

Diotenez, kutsakorra ez den

metodoa erabiliz, bilduriko materialeak erreziklatzen da, honek dituen zidar-gatzak atara eta garbituta, kotizatzen den zidarprezioan gero salduko diren lingoteetan urtzeko.

Kanpaina hau Hirugarren Munduarekiko elkartasunaren eta inguruarekiko errespetuzko joeren ildotik doa.

"Erabili eta bota"ren kultura alde batera utziz, posible den dena berrerabiltzen ohitu behar gara, eta berrerabiltzea posible ez denean, birziklartzera. Guzti honengatik EKIK, Arrasaten eta Deba Garaian partaide diren farmazietara zuen erradiografiak eramatea eskatzen dizkizue.

Mikel Olabe

ZORIONAK ETA URTE ASKOTARAKO!

Zorionak eta urte askotarako ZAED Gazteak-ekoei Hiru Haundixak hiru egunetan ibilaldia antolatzeagatik! Zorionak halako ibilaldi mundiala antolatzeagatik! Zorionak eta eskerrik asko eman zeniguten tratuagatik! Zorionak jatorrak izateagatik! Eskerrik asko dena ahoko zulora emateagatik!

Ia aguro-aguro antolaketan dozuen afari-merixendioi!

*Maite, Arantxi,
Joxemiel eta Alex*

Zuzenketa

Udalpe Elkarteari buruzko erreportaian oker bat egin genuen. Elkartearen fundatzaile izan zirenetatik bizirik bi geratzen zirela esaten zen: Pablo Garai eta Ambrosio Garai. Informazioa ez zen zuzena, Ambrosio Garai hilda dago eta. Bitoriano Medina da bizirik geratzen den beste fundatzailea.

Memesa
79 42 22

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

Sargoriarekin berdin moldatzen zara?



Purdenti Nafarrate
Jubilatua
(74 urte)

Zaparrada baino hobea da. Gerritik erdi gaisorik nabil eta eguraldi beroarekin hobeto egoten naiz.



Ana Arizmendiarieta
Langabezian
(23 urte)

Gurago dut uda, baina hobeto eguraldi ona eta freskoa egiten badu.




Diego Sanchez
Langilea
(35 urte)

Eguzkia gustatzen zait. Hala eta guztiz ere sargoria ez da ona, egun guztia berotuta egoten zara eta.



Ines Sanchez
Langilea
(26 urte)

Berdin zait. Eguraldi txarra baino nahiago dut. Horrelako eguraldiek molestatzen dute baina jasangarriak dira.




Mikel Beitia
Langilea
(44 urte)

Sargoria baino sirimiria gurago. Temperatura altuekin ezin da lanik egin.



Rosa Mari Garcia
Langilea
(39 urte)

Beroa gustoko dut baina sargoria ez. Nekatuta sentitzen ditut hankak eguraldi sargoriarekin.



Jose Juan Campollo
Langilea
(23 urte)

Gauden sasoirako hobe fresko egitea. Azken egunetako beroak ez dira sanoak.



Encarna Navarro
Etxekoandrea
(51 urte)

Aste honetan gaizki pasatu dut sargoriarekin. Egun baten etxean geratu behar izan nuen kalera ezin zelako irten.

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 79 46 62

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 79 91 84
ARETXABALETA

USTEAK USTE

Udarako dira bizikletak

Eguraldi onarekin batera bizikletaz betetzen dira errepideak. Olanorenak eginez batzuk, pasioan asko, iladan eta erreleboka zerbait prestatu nahian dabiltzanak, eta tropeltxoak osatuz gehienak. Sarritan ikusten ditut horrelakoa hemendik Antzuolara. Eta ondorio honetara iritsi naiz: denentzat arriskua gordetzen du errepide horrek. Noizbait gurdibide zena gaur auto, furgona, kamioi eta trailer bide da. Ikutu bat eman, apur bat zabaldu eta tamaina guztietako tramankuluak sartzeko modukoa egin zuten. Sasoi bateko gurdiendako eta gaurko bizikletendako ez dago tokirik. irtenbidea premiazkoa da, baina aukeratzera koan, tramankulu handiekin pentsatuko duten moduan pedalei eraginez gustora ibiltzen direnekin ere pentsatu beharko lukete.

Bestela, pedalei astinduren bat edo beste emanez ibiltzea lasaigarria, ederra, eta osasuntsua dela pentsatzen dutenek, nik egin nuen moduan, errepidekoa saldu eta mendikoa erosi beharko dute.

Beñardo Kortabarría



3. mundua: desinformaziotik gain informaziora

Iban Lizarralde

Aste osoan zehar, Komite Internazionalistak eta Mugarik Gabeko Injeneritzak ihardunaldi batzuk antolatu ditugu; Peru, Sahara eta Chiapas-i buruz. Jakin badakigu, ez direla Arrasaten egiten diren lehen ihardunaldiak, ezta azkenak ere. Horregatik agian, hausnarketa txiki bat egitea egoki deritzogu.

Neokolonizazio garaiekin batera, 3. Munduan kooperazio lanak burutzen zituzten taldeak sortu ziren. Laster asko konturatu ziren, herrialde aurreratuetakojendearen informazio gabeziak, eta 3. Munduan burutzen zituzten proiektu ezberdinekin batera, herrialde hauen egoeraren berri ematen saiatu ziren.

Gaur egun ordea, telekomunikazioen garaian bizitara; egun edo eta ordu ba-

tzuen buruan, munduko edozein izkinatan gertatzen denaren berri daukagu. Hala ere, gure inguruan, errealitateetik urrun dauden pentsaera kasuak ugari dira. Guztiak, beste herrialde eta kulturak ez ezagutzeagatik, eta batez ere, jasotako desinformazioagatik. Eguneroko ogia da, arabiar guztiak fanatiko hutsak direla pentsatzen duen norbaitekin aurkitzea, edo eta Afrikako beltz gaixoak, kulturarik gabeko alper batzuk direla, edo...

**“
Gobernuz Kanpoko Erakundeek eginkizuna izandako esperientzien berri ematera mugatu da
”**

Makina bat talde saiatzen gara herri hauen oihartzuna izaten, ihardunaldi, hitzaldi eta abar antolatuz, jendearen erantzuna ordea ez da guk espero duguna. Honen zergatia gain informazioan aurki dezakegu; Hau da hau, lehen desinformazioa eta orain gain informazioa, larregi eta txarto.

Hainbat kasutan gainera, Gobernuz Kanpoko Erakundeek iparraldean dugun eginkizuna, izandako esperientziaren berri ematera mugatu da, oporretan doan edozeinek egiten duen bezalaxe. Egiten ditugun proiektuei buruz, gogoeta sakona egin beharko genuke, eta agian gure esfortzurik handiena hemen kontzentratu: Gure pentsakerak eguneroko bizitzan isladatzen, eta arlo ezberdinetan gure ingurukoak sentibilizatzen. Adibidez, eta informazioari buruz hitz egiten aritu garenez, 3. Munduko herrialdeen bozeramaile izan beharrean, euren hitza guregana heltzea galerazten duen informazio monopolioa borrokatzen saiatu beharko ginateke. Informazio larregi eta txarra izan beharrean, beharrezkoa eta zuzena izan dadin.

Jardunaldi internazionalisten antolatzailleen izenean

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerías, 35 ARRASATE
Tel.: 77 13 78

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiral
Setatik 8etara.
Tel.: 79 26 99

astea bi hitzetan

■ **Uribarriko lokal berriko planuak erakusgai**

Zapatu eguerdian batzar orokorra egin zuten Uribarriko jubilatutako etxeko bazkideek.

Bilera zela eta, egoitza berriko planoak jarri ziren erakusgai. Egoitza berria barrutik antolatzen duen proiektua Kudea enpresak egin du. Laster obrak hasi, eta urte amaierarako Usatxe plazako egoitza berria gertu egongo dela uste da. Aurrera begira, egoitzako datuak informatizatzea da Uribarrikoek duten hurrengo erronka.

Bilera egin ostean bazkaria egin zuten bazkideek.

■ **Senitarteko topaketak Aita Mennin**

Urtero moduan senitarteko topaketak egin ziren

joan den domekan Aita Mennin ospitalean. Ospitaleko arduradunek esan bezala, gaisoendako garrantzitsua izaten da familiarterko guztiak bilduta ikustea. Meza entzun eta gaisoek ekintza batzuk egin ostean, bazkaria izan zen guztiendako.

■ **Ikerlanek iazko balantzea egin**

Joan den ostegunean urteko batzarra egin zuen Ikerlanek, eta 96a orokorrean urte ona izan zela azpimarratu zuten. Iaz, orain dela bi urte baino proiektu gehiago garatu ziren Ikerlanen, horrek irabazietan gehikuntza ekarri. Jaurlaritzak ikertegiei buruz egingako azterketaren berri ere jakinarazi zen batzarrean. Azterketa horren arabera, Arrasatekoa da ikerketa eta

garapen proiektu gehien egiten ari den ikertegia.

■ **Ingelesezt hitz eginez**

Astelehen goizean hasiera eman zitzaion Hezibidek antolatutako ingeles azokari. Ekintza berezi horren inaugurazio ekitaldian izan ziren Felix Ormaetxea, Hezibideko zuzendaria eta Edurne Gumuzio, Jaurlaritzako Pedagogi Berrikuntzarako zuzendaria. San Frantzisko Xabier, Almen, San Viator eta Umezaintzako zuzendariak ere inaugurazioan izan ziren. Jaurlaritzako ordezkariak interesgarritzat jo zuen Hezibidek antolatutako azoka, eta eskola publikoetan ere antzerako ekintzak egiten ari direla gogoratu zuen.

2.200 ikaslek parte hartu du azoka horretan.



ZARTZUELA BIKAINA BAINA JENDETZARIK EZ

Berrehun lagun joan ziren Madrilgo Opera Komikoak zapatuan eskaini zuen zartzuela emanaldira. Bertan izan zirenen arabera, musika-riak eta kantariak ederto aritu zirenez emanaldia bikaina izan zen. Eszenifikazioa eta dekoratua ere ondo lortuta ei zeuden.



Arrasaten dago Leze Txiki, eta Arrasatetik Atapuercara ez da asko halako gauzetan. Leze Txikikoa ondo ezagutzen dut. Hor lanean ari ginela, egun batean On Joxe Miel kanpora joan zen zerbait egitera, ni geratu nintzen bakarrik aztarnategian. Ramontxo Elozegi tolosarra zegoen nirekin lanean, eta bion artean aurkitu genuen hezur hori. Hezur hori oso zaharra da, orduan gutxienez 100.000 bat urte izango zituela pentsatu genuen. Geroztik egin dira datazio batzuk, baina ez dakigu ziur noizkoa den hezur hori. Dena den, nik ez dut pentsatzen 200.000 urte baino gehiago izango dituenik. Orduan, uste dut nahiko urruti daudela Atapuercako hezur horietatik. Nolanahi ere, EHUKo antropologia fisiko irakaslea zen Basabe antropologoak aztertu zuen bere garaian, eta pentsatzen zuen Neandhertal arrazakoa zela. Orain aztertu dute berriro, eta batez ere egin dute konparatu Atapuercan agertzen ari diren hezurrekin. Badaude kideasun batzuk, baina ez dakit zenbateraino atzera litekeen Leze Txikiko aurkikuntza. Ez zait iruditzen hain zaharra denik”.

JESUS ALTUNA

Euskaldunon Egunkaria
1997-5-28

**TXOKO
TABERNA**

€ure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak



**LOGOPEDIA
ZENTRUA**

ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tel.: 79 79 46 • ARRASATE

Sistema berria kanpoan mahaiak jartzen dituzten tabernariendako

Taberna edo gozotegi kanpoan mahaiak jartzen dituzten merkatarientzako sistema berria jarri du aurten Udalak.

Azken urteetan Udalak uda partean terrazak jartzeko baimena eman izan du, baina beste hilabete batzuetan ere eguraldi ona izaten dela eta, Ibai Artek mahaiak jartzeko aukera urte guztian edukitzea eskatu zuen. Eskariari baiezkoa eman, eta tarifak gaurkotu ditu Udalak. Orain, urte osorako tasa ordaintzeko aukera dute hala erabakitzen duten tabernariak. Erdialdean mahaiak jartzen dituenak, esaterako, m²ko 2.000 pezeta ordaindu behar du, beraz, 10 mahai jarriz gero 80.000 pezeta pagatuko ditu urte osorako. San Andres ingurukoak beste kategoria bat dutenez, gutxiago ordaintzen dute. Kasu honetan 10 mahai jartzea 60.000 pezeta kostako litzateke.

Bide publikoa erabiltze-



Eguraldi onarekin mahaiak kanpora ateratzen dituzte tabernariak.

agatik ordaindu beharreko diru kopuruaz gain, bete beharreko baldintza batzuk ere badaude. Egunero, mahaiak eta aulkiak jaso eta inguruak garbitu behar dira, eta horrez gain, kontuan izan behar da

oinezkoendako kalea ez oztopatzea.

Iaz 20 taberna eta gozotegik jaso zuten terraza jartzeko baimena, baina sistema berriarekin aurten eskaria igo egin daitekeela uste da.

Udalaren proposamena Diputazioari

Gesalibarko goi pasabidea dela eta proposamen berria egin dio Udalak Diputazioari.

Pasabidearen erabiltzailea, ospitale psikiatrikoa, pasabidea konpontzeko diru kopuru bat jartzeko gertu dagoenez, irtenbide modura falta den diru kantitatea ematea eskatu dio Udalak Foru Aldundiari. Proposamen hori heleraziko da Donostiara, eta ondoren ikusi egin behar zer erantzun jasotzen den.

Udalaren eta Diputazioaren arteko auzia, Garagarzatzatik Arabako mugaraino doan errepide zatia konpondu zenetik dator. Udalaren arabera, Diputazioaren proiektuan jasotzen zen ospitaleko psikiatrikoak erabiltzen zuen goi pasabidea bota edo berria egitea. Errepideko obrak bukatu eta goi pasabidea dagoenetan geratu denez, emandako hitza betetzea eskatuz dio Udalak Diputazioari, baina orain arte ez da akordiorik lortu.

NON DAGO CURRO?

Ez dakigu non, baina eskuartean daukazun ARRASATE PRESSen ezkutatu da. Topatu eta kupoitxo bat.

Asmatzen duzuenon artean **2 pertsonendako TENERIFERA BIDAIA BAT** zozketatuko da HALCON BIDAIA Ken eskutik.

Zozketa ATBn zuzenean emango da ekainaren 18an MUNDUARI BUELTA KA programan.



365. zenb.

IZEN-ABIZENAK:
 TELEFONOA:
 NON DAGO CURRO? ZEIN ORRIALDETAN?

Moztu kupoi hau eta ekarri edo bidali:
 ARKO, Otalora Lizentziatua, 31
 20.500 Arrasate



Mankomunitatean txakurtegia behar ote den aztertzen hasi dira berriro ere

Deba Garaiko Mankomunitateak aspaldiko gai bati heldu dio berriro ere: txakurtegiari. Kalean geratzen diren txakurrak jasotzeko antolatuko litzateke txakurtegi zerbitzua.

Astean Mankomunitateko junta bildu da hileroko batzarrean, zerbitzu horren komenigarritasunaz hitz egiteko besteak beste. Bileran Udal bakoitzak txakurtegia antolatzeari buruz duen iritzia eman behar zuen, baina hiru Udalen iritzia ezagutu zen bakarrik. Bergarak eta Elgetak begi onez ikusten dute

txakurtegi zerbitzua jartzea, baina Antzuolakoari ez zaio beharrezkoa iruditzen eta ezezkoa eman zuen batzarrean. Esan bezala, gainontzeko Udalek ez zuten jarrerarik azaldu, eta ekaineko juntan eman beharko dute erantzuna. Proiektua onartuko balitz, txakurtegia non kokatu erabaki eta lehiaketa deituko litzateke zerbitzua adjudikatzeko.

Inguruko herrietan ez dago txakurtegi zerbitzurik, eta kalean geratzen diren txakurrak Gasteizko txakurtegiara eramaten dira.



Kalean geratzen diren txakurrak batzeko izango litzateke.

Obenerreka parkea erlez bete zen astearte arratsaldean

Astearte arratsaldean erle mordo agertu zen Obenerreka parkera. Erleak kolumpio baten azpian jarri zirenez, auzokoekek Udaltzaingoari deitu zioten egoeraren arriskuaz ohartaraziz. Udaltzainek erlazain bati

deitu, eta horrek erlauntza kaxan sartzea lortu zuen. Lehengo kea eta ondoren ura erabili zituen erleak kaxan sartzeko. Ehunen bat kanpogan geratu, baina gehienak kaxan sartzea lortu zen.

Gose grebalariek astearteko enkarteladan parte hartu

Asteartero Senideek egiten duten enkarteladan parte hartu zuen Eskola Politeknikoan gose greba egiten ari den ikasle talde batek.

Normalean enkartelada Seberon egiten badute ere,

joan den asteartean Arrasateko erdigunetik ibili ziren enkarteladuta.

Eskola Politeknikoko ikasle batzuk txandaka egin duten gose greba gaur arratsaldean bukatuko da.



IRAKASLE ESKOLA MONDRAGON UNIBERTSITATEA

1997-98 ikasturterako aurreinskripzio-epea zabalik

• MAGISTERITZA

Espezialitateak:

- Haur hezkuntza
- Hezkuntza berezia
- Azterriko hizkuntza: ingelesa

• HUMANITATEAK-ENPRESA Lizentziatura

Lizentziatura honek profesional gaituak sortu nahi ditu, pertsona eta erakundearen kudeaketa, zuzendaritza eta garapenean sortzen diren eskaera eta beharrei erantzuteko prestatuak.

INFORMAZIOA:

IRAKASLE ESKOLA • Tel.: 71 41 57 • 20.540 ESKORIATZA

KIROL ZERBITZUEN ESKAINTZA

AUKEA Kirol Erakundeak honako kirol zerbitzuak betetzea behar ditu:

- MANTENIMENDUKO GIMNASIA
- AEROBIC

Informazioa eta dokumentazioa non eskuratu:

Musakolako Kiroldegan. Tel.: 79 04 27

Eskaintzak aurkezteko epea: 1.997ko ekainaren 16a



ARRASATEKO UDALA

AUKEA ■
Kirol Erakunde ■
■

Hirugarren mundurako dirulaguntza lau talderen artean banatu du Udalak

Aurtengo aurrekontuetan 4.500.000 pta. zuzendu zituen Udalak hirugarren mundurako. Azkenaldian egin duen moduan,

udaletxean lankidetzaz proiekturen bat aurkeztu duten elkarten artean banatu du dirulaguntza. Lau taldek jasoko dute lagun-

tza aurtengoa. Laguntza gabe geratu den bakarra Chernobyl elkarte da, eskatutakoa ez zelako proiektu baterako.

Komite Internazionalistak

1.160.000 pta.

Norako: Mexiko
Zertarako: Indigenez osatutako zonalde batek ur edan-garria jaso dezan, tanke eta deposito bateraikitzeke. 1.200 lagun izango dira onuradun.

Aurrekontu orokorra: 7.700.000 pta. (Beste herri batzuetako Komiteek ere parte hartuko dute).

Harreman taldea

1.160.000 pta.

Norako: Kolombia
Zertarako: San Clementen nekazaritzako produktuak transformatzeko lantegia jartzea. 160.000 laguni emango zaio lantegian parte hartzeko aukera.

Aurrekontu orokorra: 21 milioi. (Aretxabaletako taldearekin batera eramango da aurrera).

Manos Unidas

1.000.000 pta.

Norako: Peru
Zertarako: Baserri giroko toki batean osasun zentro bat egin eta hornitzeko. 35.000 lagunendako izango da zentroa.

Aurrekontu orokorra: 5 milioi. (Beste herri batzuetako taldeek ere laguntza eman-goto dute).

Mugarik Gabeko Injineruak

778.000 pta.

Norako: Argeliako basamortuan errefuxiatuta bizi diren saharatarrendako.

Zertarako: kanpamentuetan bizi diren 20 ikasle informatikan trebatzeko.

Aurrekontu orokorra: 1.060.000 pta..

**DOKUMENTU
ETA PAKETEEN
GARRAIO AZKARRA**

**GRUPO
RT2
TRANSPORTES**

S

NACEX

Servicio Exprés

900 100 000
Informazio orokorra
<http://www.nacex.com>
Email: nacex@nacex.com

Bizkaia Etorbidea, 16 behea
20.500 ARRASATE
79 92 77

Opari zuzena

Zuretzat,
kartera
hau.

**Superlibreta
baten titularra
izateagatik baino ez.**

Ekainaren 30ean zure Superlibretan 150.000pta.tik gorako saldoa baduzu eta saldo hori apirilaren 1ean zenuenaren parekoa edo handiagoa bada, larruanitzeko Kartera praktiko bat lortuko duzu.

Gainera, apirilaren 1ean zenuen saldoa gutxienez 150.000 pta. handitu baduzu, Nojako Apartamentu baten zozketan ere parte hartuko duzu.

Ikus dezakezunez, Superlibretak %4rainoko interesa emateaz gain, sorpresa atseginak ditu.



**Nojan dagoen
apartamentu baten
zozketa, 9 milioitan
baloratutakoa.**



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Hori da umorea! Musakolako gazte txokokoek auzoko jaiak zirela eta makina bat ekintza antolatatu zuten: txapelketak, lehiaketak.. denetik izan zen. Gainera euren lokala non zegoen jakinarazteko pegatina dotorea ere kaleratu zuten baserritar moderno horrekin. Argazkian eskuak jasota atrako baten aurrean daudela iruditu arren, aurrean dagoena Arrasate Presseko argazki kamara baino ez da.



ZELAKO ASMAKIZUNA

Maitek, Nagorek, Mariak, Jesicak eta Beak itsuendako bastoi moderno bat asmatu, eta ONCEK antolatzen duen lehiaketan parte hartu zuten. ONCEkoei izugarrizko ideia iruditu, eta Gipuzkoako lehen saria eta Euskal Herri mailako bigarrena eman diete. Ea norbaitek fabrikatzen duen La Merced-eko neska hauen bastoia!




UDALPE ELKARTEARI ESKER ONEZ

ka orogarri bat eman zion Alkateak Udalpe elkarteari.

Bazkalostean jaso zuten plaka Udalpekoek, elkarte bazkideen enean. Udalpek 250 bazkide baditu ere, domekako ospakizumene guztiak bete eta 110 lagunendako tokia izan zen bakarrik.

Bazkarian ezin denek parte hartu, baina egunean zehar eguzti guztiendako izan zen tokia. Eguerdian tanborrada egin zen, Udalpe tanborrada. Ondoren, pilotazaleentzat partidua izan zen Zaldiba




Asteartean, hilak 27, 25 urte bete ziren Bixente Lete eta Nekane Elortza ezkondu zirela. Larunbatean ospatu egin behar zutela eta, egunean bertan soziedadera joateko esan zieten etxe-koek, larunbatekoa prestatzeko. Soziedadera iritsi eta sorpresa!! Ospakizuna bertan!! Asuntoa ez zen hartan bukatu, astearte-

akoaz gain, bihar larunbatean ospakizun ofiziala egingo dute eta.




25 URTE ELKARREKIN



errogateitamar urteetan herrian lana eskertzeko, domekan pla-

ka zego- eikuspen

kintzetan sortutako




EZTAIA GONBIDATUAK BERANDU

Orain hilabete inguru Larraitz eta Txusti ezkongai bidaiari Mejikon zeudela atera genituen txoko honetan. Aste honetan euren lagunak ditugu argazkian. Hauek ere Mejikora joan ziren bikotearen bila. Joan bai, baina alperrik. Non egongo dira Larraitz eta Txusti? Batek daki!

Rent a Car
Alkilerreko autoak:
Twingo, Clio, Mégane,
Laguna, Espace...

Tel.: 79 50 12 / 79 52 12




IZENAK

Joakin Iria

izendatu dute Uribarri-ko jubilatutako lehendakari. Antton Garate ordezkatuko du lehendakari berriak. Joakin Iriak 60 urte ditu.

Artziprestalgoa

Arrasateko Artziprestalgoaren Osasun Pastoralaren Zuzendaritza Batzordean aldaketak egin dira. Manuel Uribe (Arrasate) taldeen moderatzaile eta dinamizatzaile, Josefa Etxebarria (Aretxabaleta) idazkaria, Maritxu Alegria (Eskoriatza) diruzaina, eta Eli (Oñati) bokala.



weru
Ate + leihoak




ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVCko ate eta
leihoez gain:
Moketak jartzea,
zoru arinak,
kortxoa,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, textila...



**Azken bultzadatxoa
falta zaizula?
Matrikula zaitez!
Geurekin errezagoa da!**

**Ekainaren 30etik uztailaren 24ra arte
5 ordu goizez
Maila guztiak
(16 urtetik gorakoentzat)**

**Matrikulaldia
Ekainaren 2tik 13ra arte
Prezioa: 10.500 pta.
BEKA SISTEMA daukagu!**



ARRASATEKO UDALA

Udal Euskaltegia ■

Arrasateko rock taldeak

Talde eta martxa berriak

Arrasaten rock-ak "zarata" ateratzen jarraitzen du, eta azken bi urteotan talde berriak sortu eta maketa dexente grabatu da. Arrasateko rock-aren berpizkudean ote gaudede?

Orokortu beharra dagoelako deituko diegu rock taldeak, zeren Arrasaten zerbait badago hori estiloen ugaritasuna da eta: punk-a, heavy-a, rock-a, pop-a, dance-a... deneztarik. Musika estilo desberdinak, eta talde bakoitza mundu bat: batzuk garajetik irteko prest, eta beste batzuk proiektuan daude oraindik.

Rip taldearen ostean eta baita lehenago ere izan da rock doinurik Arrasaten. Baina joanak joan, eta azken urteotan hainbat tal-

de berri jaio da doinu berriak ekarriz. Punk edo heavy estiloek jarraitzaile fidelak dituzte oraindik, baina badira rap-aren, dance-aren edo hard cord-aren inguruan dabilzan taldeak ere.

ESTILO DESBERDINAK

Egun hemezortzi talde inguru daude herrian. Batzuk nahiko ezagunak: *Ekon*, *Iskanbila* edo *La Txusma*; beste batzuk orain dela gutxi jaio, eta ez direnak hain ezagun: *Eskizofrenia Rock*, *Aspirine* edo *Bad F-Line*. Talde ugari, estilo eta asmo desberdinekoak.

Orain dela bi urte eta erdi jaio zen *Ekon* taldea, eta musika estiloari dagokionez trash eta rap-aren nahasketa egiten ei dute. Zuzeneko kontzertuetarako, gainera, pregrabatuak erabiltzen dituzte. Euskaraz abesten dute *Ekonekoek*, eta



JON OZNETA

Ekon.



ENERKO ALLENDE

Iskanbila.

bateri jolea konpartitzen dute *Brutal Melody* taldekoekin. Bateri jole bera eduki arren, hard cord estilotik gertuago daude *Brutalekoak*.

Lehenago sortu da *Iskanbila*. 92an eratu zen taldea, eta of estiloko kantak konposatzen dituzte, hau da, punk-aren antzerakoa. Horiek ere euskaraz

95 urtean bi taldek grabatu zuten maketa, eta 96an zortzik.

kantatzen dute, baina badute gaztelera zko pare bat kanta. Beste veterano batzuk: *La Txusma* eta *Los Pichones*. Lehenengoek heavy-a dute estiloz, eta bigarrenek rock-a.

Baina badira talde edo proiektu berriagoak, esaterako, *Bad F-Line* taldea. Ordenadoreen bidez konposatzen dute *Bad F-Line*koek; euren doinueta ordenadoreetatik ateratako soinu efektuak dira nagusi eta dance estilotik hurbil daude. *Voodoo Trance* taldea ere proiektuan dago oraindik, baina dagoeneko bi maketa grabatu ditu pop estiloko taldeak. Orain dela hilabete gutxi sortu denik ere bada: *Eskizofrenia Rock*. Punk-rock estiloa dute gustoko *Eskizofreniak*koek, *Eskorbuto* taldearen kanten antza ei dute euren ere.

Gehienek euskaraz abestu arren, bada gaztelera zko kanta-

tua eta aplikadorea erosteko. Orain dela urte batzuk, esaterako, *Iskanbilak*koek jaietan txozna jarri, eta lortutako diruarekin aplikadorea eta bateria erosi zuten. *Eskizofrenia* koei ere joan zaie denbora diru bildu eta instrumentuak erosi dituztenerako.

Horrez gain, entsaiatzeko lokalaren alokairua ere ordaindu behar izaten dute talde batzuk. *Brutal Melody* eta *Ekon* taldeek hileroko 24.000 pezeta alokairua ordaintzen dute.

Alokairua ordaindu beharrik ez dute Udalaren lokaletan entsaiatzen dutenek. Musakola auzoan gora, soinuak inor molestatu ezin duen toki batean, rock taldeendako lokalak ditu Udalak. Hamar bat taldek entsaiatzen du han eta bakoitzak bere ordutegia du. Argindarra eta ura ere Udalak ordaintzen ditu. Taldeen ardura baka-

maketen grabazioan. 95ean bi talde animatu ziren maketa grabatzera, eta 96an zortzi talde. Aurtengoari dagokionez, bost maketa grabatu dira orain arte.

Esan bezala herriko talde guztiek *Shot!* estudioetara jotzen dute, eta esaterako, bost abestiz osatutako maketa grabatzea 150.000 eta 200.000 pezeta inguru kostatzen da. Diru horri aurre egiteko Udalak laguntza eskaintzen du baina inoiz ez da 80.000 pezeta baino gehiagokoa izaten. Horregatik, maketa ordaintzeko ere poltsikoak astindu behar izaten dira.

Taldearen lana ezagutzera ematen laguntzen dute maketek baina zerbait serioa nahi dutenek CDa grabatzen dute. Martxoan salgai jarri da *Iskanbilaren* CD-a eta grabazioa taldekideek ordaindu dute. Ez

ospetsu horretara 700 maketa aurkeztu dira, baina guzti horietatik 12 aukeratu dituzte; eta horietako bat Arrasateko taldearena. Aurtengo irabazlearen izena egun gutxi barru jakingo da. *Ekonekoek* nahiago dute ilusiorik ez egitea, baina batek daki.

Ez da lorpen txikiagoa *Brutal Melody*rena. Talde horrek 1.000 maketa saltzea lortu du, eta taldekide batek aitortzen duenez kopuru hori saltzea ez da marka makala.

RIP AGORTEZINA

Talde berriak euren kantak ezagutzera ematen ari diren bitartean, orain arte ospe gehien lortu duen talde mondrautarraren kantek gaurkotatuna hartuko dute berriro. Zelan ez, RIP taldeari buruz ari gara.

Talde batzuek urteak daramate Udalaren lokaletan entsaiatzen, baina beste batzuk ordutegi finkoa edo

tzen duenik: punk-rock egiten duen *Arsenal* taldea.

Estiloari buruz ari gara, eta estilo jakin batekin identifikatzen ez den talderik aurki daiteke Arrasaten: *E.T.C.* eta *Aspirine*. Azken hauek, medikuntzari buruzko liburuetatik ateratzen dituzte kanten letrak. Kontzertuetan, kantariak medikuntzako liburua aurreran jarri eta bertan idatzita datorrena irakurtzen du kantuan. Duda barik talde berritzailea *Aspirine* hori!

POLTSIKOAK ASTINDU BEHAR

Ez pentsa, ez da kontu merkea musika taldeena, eta batzuk sakrifizio dexente egin behar izaten dute instrumen-

terra lokalak garbitzea.

Talde batzuek urteak daramate Udalaren lokaletan entsaiatzen, baina beste batzuek ordutegi finkoa edukitzea gaizki etortzen zaie eta, garage edo txoko bat alokatu behar izaten dute. Horrelakoetan entsaiatzen dutenek, badute arriskurik: zaratagatik, batzuetan arazoak sortzen dira inguruko bizilagunekin eta bat baino gehiago geratu izan da kale gorrian.

Instrumentua, batzuek lokal eta ondoren maketaren kontua dator. *Shot!* bezalako grabazio estudio bat herrian edukitzeak eragin handia izan du, eta iaz "boom" bat gertatu zen

dute esan nahi zenbat kostatu zaien grabazioa, baina aitortzen dute diru asko izan dela.

TOKIA EGITEN

Asko dira proiektuan dauden edo oraingoz garajetik irteteko asmorik ez duten taldeak. Beste rock talde batzuk, berriz, ia atsedetik hartu barik kontzertuak ematen ari dira. *Iskanbilak*koek, esaterako, ekaineko astebukaera guztiak okupatuta izango dituzte. Ekon eta Brutal ere kontzertuz kontzertu dabilza azkenaldian.

Lorpen garrantzitsu batzuk ere badira. Aurtengo Villa de Bilbao lehiaketan parte hartu du *Ekon* taldeak. Lehiaketa

Shot! estudioaren ekimenez, RIP taldearen hamazazpi kanta jasotzen dituen CDa kaleratuko da San Juanak baino lehen. Ez da bilduma lana izango, hainbat taldek RIPen kantuei egindako bertsioak jasoko ditu konpaktoak. RIPen betiko kantak trash, funky edo dance estiloan.

Talde mitikoaren kantak moldatu dituzte herriko sei taldek: *El Desván Del Mächok*, *Brutal Melodyk*, *Bad F-Linek*, *Iskanbilak*, *Elkorobarrutiak* eta *Los Pichonesek*. Ikusten denez, kanta batzuk ez dira modaz pasatzen baina haize freskoen beharra ere izaten dute. ■

Maria Agirre

JON OZAEIA



Ekon.



La Txusma.

JON OZAEIA



Altar.



Bad F-Line.

itzea gaizki etortzen zaiela eta,
garaje edo txoko bat
alokatu behar izaten dute.

ENERKO ALLENDE



Brutal Melody.



Eskizofrenia Rock.

Maratoilaira

CESAR DIEZ

"New York-eko maratoira joango naiz azaroan"

— **Nola sortu zitzaizun maratoira joateko ideia?**

— Euskadiko Kutxak Euskal Herriko itzuliaren kinie-la atera zuen eta irabazle izan nintzen. 500.000 pezeta jaso ditut eta diru horrekin joango naiz New Yorkera.

— **Eta zergatik New York-era?**

— Duela 10 urte maratoia korritzen hasterakoan telebistan New Yorkekoa ikusi eta hain liluratuta geratu nintzen neure buruari bertara noizbait joatea agindu niola. Gainera behar bada korritzen dudana azken maratoia izango da.

— **Zergatik?**

— Denbora asko eskatzen du kirol honek. Entrenamendu gogorak dira eta lana izanez gero, sakrifizio handia da konpentsaziorik ez ateratzeko. Bestalde babeslerik izango banu animatuko nintzateke esatebaterako Londresko maratoian parte hartzera.

— **Babeslerik baduzu?**


— Euskadiko Kutxaren sariaren dirua eta horrez gain materiala. Bera da nire babeslea.

— **Helburua maratoian?**

— Urduritasun eta helburu zehatz barik joango naiz. 3 orduatik jeistea gustatuko litzaidake. Nire denbora 2.39'08" edo 2.40'00" da baina egia esateko ez noa marka haustera. Denborak hobetzeko beste maratoi batzuk daude.

— **Etxean zer esaten dizute?**

— Emaztea oso pozik dago eta aguantatu behar izan duena ikusita merezi du horrelako bidaia batek.



FUTBOLA 3. postuan bukatu



Preferente mailako Mondrak garaipen batekin esan zion agur 96-97 denboraldiari. Roteta izan zuten aurkari eta Errastik sartutako golari esker Barrutiabengoaren mutilak hiru puntuekin etorri ziren etxera. Mondrak 3. tokian amaitu du liga 67 punturekin. Bere aurretik Unibertsitatea eta Mutriku sailkatu dira. Lehen dagoeneko hirugarren mailako taldea da eta besteak promozioa jokatuko du. Maila lau taldek galdu dute: Bergarak, Mundarrok, Ilintxak eta Oriokok. Arrasatearrek jokatutako 38 partiduetatik 20 irabazi dituzte. Lehen bueltan hamar, horietatik zortzi etxean eta bi kanpoan. Bigarren bueltan beste hamar, sei etxean eta lau kanpoan. Galdu berriz, hamaika partidu. Lehen bueltan bost, lau kanpoan eta bakarra etxean. Bigarren bueltan sei, hiru kanpoan eta hiru etxean. Berdinketei dagokienez esan behar zazpi izan direla. Lehen bueltan lau, horietatik hiru kanpoan eta bakarra etxean eta bigarren bueltan hiru, denak etxetik kanpo. Golei gainbegirada emanez, Mondrak 57 gol sartu ditu eta 38 jaso. Goleatzaile trebeena Golo izan da 12rekin, Aranburuk zazpi lortu ditu, Otxoak sei, Oxelek bost. Hiru golekin lau jokalarik: Gonzalo, Alberto, Raul eta Esparza. Bi golekin hiru jokalarik: Calleja, Haritz eta Errasti. Gol bakarraz: Beñat, Tola eta Pildain.

Datorren urteari begira taldean ez da aldaketa nabarmenik izango. Jesus Mari Barrutiabengoa entrenatzaileak bere lanean jarraituko du. Baja ziurrak Areitio atezaina eta Aranburu dira. Zalantzan beste hiru jokalarik daude: Pil-

dain, Otxoa eta Zulueta. Hauek oraindik ez dute erantzun eta baliteke bateren bat datorren urtean beste talderen baten izatea. Era berean aurpegi berririk ere egongo dela esan daiteke. Mondra atezain baten bila dabil eta postu desberdinetan jokatzea beste jokalarik batekin jarri da harremanetan. Azken honek oraindik ez du erantzunik eman baina datu moduan esan dezakegu arrasatearra dela eta gaur arte preferente mailako talde batean jokatu duela.

Mondrako emakumeek kopako finala jokatuko derrigorrez irabazi behar zuten Azpeitiko Lagun Onak taldearen kontra. Juanina Garaik zuzentzen duen taldeak ezin izan zuten helburua bete eta finaletik kanpo geratu da. Lagun Onak 3 eta 2 irabazi zion Mondrari. Hauentzat ere bukatu da kopa eta bide batez denboraldia.

IGERIKETA Hiru hondartzetako trabesia



Arrasateko igerilari gazteek Donostiako txapelketan hartu zuten parte. Olatz Igartuak eta Xabier Perezek euren denborak hobetu ahal izan zuten. Eskola arteko Gipuzkoako txapelketara beste bost arrasatear joan eta dominarik lortu ez arren, maila ona erakutsi zutela esan behar. Domekan Bidasoako aletadun trabesia izan zen. Emakumezkoetan Ane Lopez de Bergarak lehen postua eskuratu zuen. Rosi Dacosta seniorretan bigarrena izan zen eta Esther Gomez hirugarrena. Datorren domekan Donostian hiru hondartzetako trabesia izango dute.

Arrasate-Oñati krosa

Luis Migel Ugarte lehen arrasatearra

Laixan eta AEDelkarteek antolatuta Jantzi Kirola Euskaraz lemapean Arrasate-Oñati lasterketa egin zen domekan. 11 kilometro eta 300 metroko ibilbidea egiteko 200 lagunetik gora elkartu zen. 15. edizio honetan ez dira Diego Garciak eta Maria Luisa Irizarrek ezarrita zeuzkaten denborak hobetu, beraz horretarako beste urtebete itxaron behar derrigorrez. Bestalde egon zen jendetza eta giro aparta aipatu behar besteak beste.



200 lagunetik gora elkartu zen herri krolean.

EMAITZAK**Gizonak**

1- Asier Cuevas	36'15"
2- Santi Gonzalez	36'25"
3- Roberto Ruiz de Balza	36'34"

Emakumeak

1- Rosi Talavera	41'50"
2- Usoa Sorazu	44'19"
3- Lurdes Balza de Vallejo	49'33"

Lehen Arrasatearrak

Luis Migel Ugarte	41'9"
Maria Carmen Garcia	51'03"

Gasteiz Hiria txapelketatik lau domina Arrasatera

Arrasatearrek urrezko domina bat, zilarrezko bi eta brontzezko bakarra lortu zuten Mendizorrotzako pistetan egin zen txapelketan. Emaizta guztien artean Asier Fernandez de Arroiabek disko jaurtiketan lortutako lehen postua aipatu behar, 38,30 metro jaurti zituen.

Zilarrezko dominak pertikan lortu ziren. Aritz Barrutiabengoak 3 metroak gainditu zituen lehen aldiz eta Jonathan Perezek ere 3 metroko muga zeharkatu ahal izan zuen. Brontzezko domina Oliver Fernandezek eskuratu zuen milaren lasterketan.

Datorren zapatuan Gasteizko Mendizorrotzako pistetan Euskadiko kadete, jubeni eta junior mailako txapelketa izango dute. Bertara Arrasate kirolak taldeko atletak dominak lortzeko asmoz joango dira.

EMAITZAK**200 metro**

Maitane Arizmendiarieta	28"7
Ihintz Bengoa	29"2
Manu Anguas	23"2
Martin Davila	23"8
Remi Diosdado	24"3

1.000 metro

Alazne Ruiz de Munain	3'17"
Iñaki Juez	2'53"
Fernando Nogales	2'57"

800 metro

Felix Sanchez	2'04"3
---------------	--------

Mila hesitan (1609 Metro)

Oliver Fernandez	5'30" - 3. postua
------------------	-------------------

Disko Jaurtiketa

Asier Fdz. de Arroiabe	38'30 metro. Urrezko domina
------------------------	-----------------------------

Pertika

Aritz Barrutiabengoak	3 metro	Bigarren postua
Jonathan Perez	3 metro	Bigarren postua

Eskoriatza Arrasate krosa

Arrasate Atletiko taldeak Arrasate Kirolakek antolatuta Eskoriatza-Arrasate krosa egingo da domekan. 8,5 kilometro ditu ibilbideak eta irteera Eskoriatzako plazan izango da eguerdiko 12etan. Bukera berriz, Arrasateko plazan. Ondoren sari banaketa. Lehen hiru sailkatuek Arrasate Kirolak dendak jarritako saria jasoko dute. Emakumeetan eta gizonezkoetan lehenak 25.000 pezeta jasoko ditu. Juniorretan lehenek 15.000 pezeta beteranoetako irabazleak bezala.

Born Jay txirrrindulari taldea

Born Jay taldeko txirrrindulariak Erandioko Txuma Memorialera joango dira domekan. Arrasateko taldeak zortzi txirrrindulari eramango ditu.

Trofeoen zain

Zaldibar txapelketako trofeoak eta gainontzeko sariak ekainaren 6tik aurrera egongo dira ikusgai Udaletxean.



Adi Zaldibar txapelketari!
Zure ustez nork irabaziko du finala?
LASTER PORRIE!

Ikus! Mondrasport ekainaren 2an, gaueko 9.30etan.

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Fosforos	3	3	0	0	20	8	6
Betrayer	3	2	0	1	13	12	4
Diego antonio	3	1	0	2	11	12	2
Insert Coin	3	0	0	3	6	18	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Naranaj mekanika	3	3	0	0	28	6	6
Galartza Konte	3	2	0	1	14	10	4
Aurrera Bolie	3	1	0	2	6	17	2
KK jauriaritzari	3	0	0	3	2	17	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Irati STS	3	3	0	0	22	10	6
Cerve Leintz	3	1	1	1	14	16	3
MSM Ing Integ	3	1	0	2	16	21	2
Ac Surcos	3	0	1	2	10	15	1

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Orlando Piratas	3	2	0	1	13	6	4
Sortu informatika	3	2	0	1	20	13	4
Sokoakoak	3	2	0	1	13	11	4
Nuevo Taberna	3	0	0	3	10	26	0

Zigorrola, 1 • 1. pabiloia
Tel.: 71 20 02

Hurrengoak

FINAL LAURDENAK

Maiatzak 31, Larunbata zaldibar

11.00 Galartza Kont - Orlando Pir.
12.00 Betrayer - Irati STS

Ekainak 1, Igandea Zaldibar

11.00 Fosforos - Cerve Leintz
12.00 Naranaj Mek. - Sortu Infor.

Laburrak

■ FINAL LAURDENAK

Hirugarren fasea bukatuta datorren asteburuan lau taldek final laurdenak jokatuko dituzte. Norgehiagoka horiek epaitzeko antolakuntzak lau lagun aukeratu ditu: Haritz, Unai, Ramon eta Andoni Zurbano. Epaile hauek ez dute lan makala izango, dagoeneko txapelketa azken txanpan sartu da

eta edozein akats erabakiorra izan daiteke txapelketa-rik kanpo geratzeko.

■ TALDE ONENAK

Hirugarren fasean egon da partidurik galdu ez duenik: Irati STS, Fosforos eta Naranja Mekanika. Denak galdu beste hiruk egin dute: Insert Coin, KK jauriaritzari eta Nuevo Taberna.

Emaitzak

A taldea

Fosforos 7 - Insert Coin 2
Diego Antonio 3 - Betrayer 4

B taldea

Naranja Mek. 7 - Galartza Kont 2
KK Jauriaritzari 0 - Aurrera Bolie 1

D taldea

Irati STS 9 - Cerve Leintz 3
MSM Ing Integ 8 - AC Surcos 4

E taldea

Nuevo tab. 6 - Sortu Inform 13
Orlando Piratas 4 - Sokoakoak 2

Uribe auzoko txapelketa

SAILKAPENA

A taldea

Amueb Zarautz	16
Jako al Rey	13
Flujos Secos	11
Niva Vin	10
Balon rojo	10
Astoen Vila	10
Babjana Sexy	8
DZV	4
Ford Publicop	4
Pakax de Amsterdam	4
Sambuka Porretas	0

B taldea

Gallinero	14
Mucho Morro	12
Munar Fool	12
Argi Plastic	12
Elisabeth	10
Rotor de Bolbogrado	10
Blind	8
Sartuixofuerte	4
Ale alee	3
Manchester Fumaited	3
Astonia	2

D taldea

Nuevo taberna	17
Los Invalidos	14
Doble Cero	11
Mendizabal Okin	10
DKB	8
Ainarexia	8
Molokai	7
Makai	6
Alai Gozokiak	6
AT Barbate	3
Piernodoiuna	0

E taldea

Borronc Roll P	16
Dribling	12
Ke oxtias	12
Bortxitxak	10
Viboras	10
Ganbelas	9
Lautherbrunnenn	8
La mosca Gao	7
Girondis De Borregos	4
Auri	2
The Pepe Wol	0

HURRENGO PARTIDUAK

Maitzak 30, Larunbata

Iturripe A

9.00	Blind - Astonia
10.00	Viboras - Borrock Roll P
11.00	Alai Gozokiak - DKB
12.00	Los Innombrables - SGK
13.00	Amuebl. Zarautz - Sambuka P
14.00	Ojo Avisore - Sobre De Txeira
15.00	Manch. Fumaited - Rotor de B
16.00	Lautherbrunnenn - Ganbelas
17.00	No hay mus - Komando Alp
18.00	Dribling - Auri
19.00	Mendizabal 0 - Doble Cero
20.00	Sartuixofuerte - Mucho Morro

Iturripe B

13.00	Lso Invalidos - AT Barbate
14.00	666 - Decima Victima
15.00	Flujos Secos- DZV
16.00	Gallinero - Munar Fool
17.00	Pajax de Amsterdam - Niva Vin
18.00	Ainarexia - Makai
19.00	Astoen Villa - Babajana Sexy
20.00	Elisabeth - Argi Plastic

Ekainak 1, Igandea

Iturripe A

10.00	Piernodoiuna - Molokai
11.00	Bortxitxak - Girondis de Borregos
12.00	Leya - Hirei
13.00	Balon Rojo - Jota al rey

F taldea

Hirei	14
No hay Mus	12
Kom alpargat	12
Leya	11
Equs BTR	11
Ojo avisore	8
Decima victima	7
Los Innombrables	7
666	4
Sobredosis de Txeira	2
SGK	0

EMAITZAK

A taldea

Amueb. Zarautz	6	Ford Publicop	4
Balon Rojo	11	Sambuka Porretas	4
Astoen Vila	8	Niva Vin	6
Flujos Secos	5	Jako al Rey	5
Babajana Sexy	5	DZV	1

B taldea

Sartuixofuerte	7	Ale Alee	4
Gallinero	0	Mucho MORro	7
Blind	1	Rotor de Bolbogrado	6
Elisabeth	3	Munar Fool	4
Astonia	1	Argi Plastic	8

D taldea

Ainarexia	2	Nuevo taberna	2
Alai Gozokiak	1	Makai	7
Piernodoiuna	1	AT Barbate	2
Mendizabal Okin	2	DKB	1
Molokai	4	Doble Cero	4

E taldea

La mosca Gao	2	Ke Oxtias	2
Dribling	1	The Pepe Wol	0
Lautherbrunnenn	4	Girondis de Borregos	2
Viboras	12	Auri	2
Ganbelas	1	Borrock Roll p	4

F taldea

No hay mus	5	Equs BTR	3
Los Innombrables	1	Komando alp	4
Leya	8	Sobredosis Txeira	3
666	8	SGK	0
Hirei	2	Decima Victima	2

Nesken futbitoa

EMAITZAK

Matildax	2	leup	2
Joixon Bertan	0	Satanklaus	1
Shaktale	4	Izenbakuak	1

HURRENGOAK (San Viator Txikin)

10.00	Satanklaus - Izenbakuak
11.00	Matildax - Shaktale
12.00	leup - Joixon Bertan.

SAILKAPENA

1- Matildax7 puntu	4- Satanklaus4 puntu
2- Shaktale6 puntu	5- Izenbakuak2 puntu
3- leup5 puntu	6- Joixon Bertan	..0 puntu

IMANOL ETXEBERRIA (ATHLETICEKO ATEZAINA)

“Goian egon arren, betio

K irol bizitza azkarra eta zuzena izan du Imanol Etxeberriak. Lau urteko epean preferentean jokatzetik Athleticetako atezain titularra izatera pasa da. Imanolek berari gertatutakoa ez dela normalena jakin arren, aukera ondo baino hobeto aprobetxatu behar duela garbi dauka.

— Zer aldatu da zure bizitzan Athleticetako atezaina zarenetik?

— Gauza asko. Joan zen urtean 2. mailan jokatu nuen aurten lehen mailan eta gainera titular. Aldaketa izugarria izan da, futbol zelai handiagoak, jende gehiago harmailetan, jokatzeko orduan beste presio eta erritmo bat. Hasieran gauza horiek asko igertzen dira, baina gero ohituz zoaz. Izaera aldetik bestalde ez dut uste aldatu naizenik.

— Jokalari baten ametsa lehen mailan jokatzeko betetzen da?

— Bai nire ilusioa hori zen. Iaz asko poztu nintzen Athleticetako jokalaririk bihurtzerokan eta aurten titular moduan nire ametsa erabat bete da.

— Atzerritarrik ez, horregatik Athleticetako beste talde batzuk baino meritu gehiago du?

— Aurten liga dagoen bezala eta atzerritar kopurua ikusita Athletica goian egoteak badu meritua. Gero UEFA dago, eta hor sartzen bagara guretako liga irabaztea moduan izango da.

— Eta UEFA bai?

— Domekan Real Madril irabaziz, aurrerapauso handia eman genuen eta UEFAko aukera hor dago. Domekan irabazten badugu eta Realak eta Valladolidek

galdu, UEFAn egongo ginateke. Dena dela oraindik hiru partidu falta dira Celta, Deportivo etxean eta Hercules. Azken arte gogor borrokatu behar dugu.

— Nolakoa da Fernandez entrenatzailea?

— Jokalarietara harreman ona du nahiz eta partidutan eta prentsaren aurrean beste itxura bat erakutsi. Jendea pozik dago Luisekin, bera ere jokalaririk izan zen

“ Dakidan gehiena ikasi dut Iribarrekin. Bere entrenamenduak oso konpletoak dira eta dituzun akats guztiak zuzentzen saiatzen da”



“Giroa izaten jarraitzen dut”

eta ezagutzen ditu aldageletako arazoak.

— Zure burua selekzioan ikusten duzu?

— Oraintxe bertan hasi naiz, 16 partiduko bakarririk daromatzat. Niretako une honetan onena esperientzia hartzeko talde honetan jarraitzea eta titular izatea litzateke. Gero selekzioaren aukera etorriko balitz, gustora hartuko nuke. Sari polita izango litzateke.

— Famatua zara. Orain lagun gehiago duzu?

— Batzutan gertatzen dira horrelakoak, baina nik nire betiko lagunak izaten jarraitzen dut. Beharbada kalean jendeak gehiago agurtzen nau.

— Lau urteko epean izugarrizko saltoa eman duzu?

— Oso azkarra izan da, gainera 22 urterekin filial batean sartzea ez da normala. Batzuk diote karrera meteorikoa egin dudala.

— Beldur gehien ematen dizun aurrelaria?

— Aurten Ronaldok, duen abiadura eta teknika beldurra ematekoa da eta. Hala ere beste talde batzutan hain ezagunak ez izan arren aurrelari oso onak badaude.

— Zer ikasi duzu Lezaman Iribarrekin?

— Dakidan guztia ez, baina gehiena bai. Bere entrenamenduak onak dira eta dituzun akats guztiak zuzentzen saiatzen da. Pertsona jatorra da eta asko daki.

— Zer hobetu behar duzu?

bat izan nuen. Partidu txarre-na izan zen.

— Onena?

— San Mamesen Compostelaren eta Zaragozaren kontra jokatuak.

— Debuta egiterakoan zer sentitu zenuen?

“Lagun arteko giroa eta familiakoa batzutan faltan botatzen da, baina egia esateko dena ezin da eta aukeratzen jakin behar duzu. Hala ere familiarekin eta lagunekin ahal dudan gehienetan egoten naiz”

— Iribarrek defentsarekin gehiago hitz egin behar dudala esaten zidan hasieran. Hori ere esperientziarekin hobetzen da.

— Egin duzun akatsik handiena?

— Valentziaren kontrako partiduan petral ibili nintzen, penaltia, gero beste irteera

— Madrilen Rayo Vallecanoren kontra izan zen. Azken orduan esan zidaten eta sorpresa ikaragarria izan zen baina egia esateko hasieran behintzat oso urduri jarri nintzen, etxetik kanpo, futbol zelai txikia.. ez dut egun hori inoiz ahaztuko.

— Realarekin jokatu-

ko derbia nola bizi izan zenuen?

— Ederto, Anoetako giroa ikusi eta emozionatu egin nintzen. Nik zuzenean behin ikusita neukan derbia eta bigarren aldiz ni neuzelaian gotea, imajinatu zer den hori.

— Real Madril, Bartzelona eta horien kontra urduriago jokatzeko da?

— Urduriago ez, motibazio eta gogo gehiagorekin bai. Horrelako neurketetan giroa bero bero egoten da eta denoi gustatzen zaigu jokatzeko.

— Pentsaren aldetik presio asko izaten duzue?

— Normalean ez, baina Lezaman egunero egoten dira komunikabideak eta denetik galdetzen dute. Ez pentsa kirol kontuak bakarrik interesatzen zaizkienik. Ahal badute dena ateratzen saiatzen dira, beraz kontuz ibili beharra dago. Bestela aurten kirol mailan ez dugu kritika asko jaso.

— Peñarik baduzu?

— Joan zen astean Zorrotzan inauguratu zen lehena baina ez da azkena izango, gutxi barru Durangon eta Barakaldon beste bi izango ditut eta.

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 79 01 82



Erakusketa eta almazena:

Kale Txiki, 3 - behea
Tel.: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE

Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

SIRIMIRI

Zure gustoko arropa!


Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

Celia Mendizabalek irabazi du aurtengo San Juanetako kartel lehiaketa

Aste honetan aukeratu da San Juan kartel lehiaketaren irabazlea. Lehiaketara 18 kartel aurkeztu dira eta "Dragoiaren agurra" lelopean bidalitakoa irten da garaile. Kartel sarituaren egilea, Celia Mendizabal da, Almen Ikas-tolan andereño izandakoa eta gaur egun jubilatua.

Epaimahaikideek beste bi finalista utzi dituzte bidean, "Arrasate Satan" eta "Colage Sur Mauve" lelopean aurkeztutako lanak. Bata orde-nagailuz eta bestea "colage" teknikaz osatutako lanak.

Dena den, Celia Mendizabalek jasoko du sariaren 100.000 pta, sari bakarra dago eta. Bere lana, akrilikoz margotutako koadroa da. Lanaren tituloak dioen bezala, Santa Barbarako Dragoia jaien ikusle bihurtzen da eta herria agurtzen du. Celiak, orain dela bi hilabete hil zen Abdon Juaristiri eskaini nahi izan dio saria. Abdon hiru urtetan Margo taldeko maisua izan zen.



Santa Barbarako dragoia ikusten da Cellaren kartel irabazlean.



Mariasun Gallastegi, finalista.



Jabier Alonso, finalista.



Gazteendako azken moda eta bigarren eskuko arropa.

DOTAKON

Konplementuetan denetatik: biserak, galtzak, ilerako tinteak, partxeak, atzazkalak margotzekuak, banderak, espalderak, pegatinak...



Otalora Lizentziatua, 1 • ARRASATE
Tel. / Fax: 77 16 92

MARCELINO eta ESTHER RUIZ

“Jendeak koadroak baino zerbait gehiago ikustea eskertzen du”

Aitak eta alabak betidanik izan dute arte sormenerako trebetasuna.

Margolaritza bien oinarria izan bada ere, bide desberdinetik jo dute euren lanetan. Marcelinok oleozko koadroak margotzea du gustoko; Estherrek berriz, taraceatik hasi eta esmaltea, estainua, zilarra eta beste hainbat gauza lantzen ditu.

- Sormenak prozesu berezi bat jarraitzea eskatzen du?

M: Uf, ni oso alperra naiz eta ez dut inolako prozesurik jarraitzen.

E: Neu ere ez naiz konstantea. Aspertu egiten nau gauza berdinak egitea. Horregatik beti izaten ditut hiruzpalau lan ezberdin hasita eta umorearen arabera bukatzen ditut.

- Zuen lanak berezitasun amankomunak dituzte?

E: Ez dute bata bestearekin zer ikusirik. Aspaldi aitak oparitutako kaballetea eta oleoak itzuli egin nizekion, koadroak margotzea ez delako nirea. Aitaren lanetik, erretratoak ditut gustokoen.

M: bere lana oso desberdina da. Baina egiten duen dena gustatzen zait.

- Koadroak margotzeak ez du zer ikusi handirik izango hormak margotzearekin...

M: Pintore tailerak bizitzeko ematen zidan. Halere, margotzeko afizioa lanarekin nahasten nuen. Aspaldiko Izkina tabernan Picassoren “hiru musikoak” margotu nuen paretan eta izugarritzko arrakasta izan zen. Bezero ugari lortu nituen lan harekin.

- Etxean guztiok dakizue marrazten. Alde artistikoa geneetan eramaten da?



E: Txikitan aitak koaderno bana ematen zigun ahizpei eta marrazten erakutsi zigun. Hirurak ikasi genuen eta amak ere eskulanak egiten ditu. Akaso izan daiteke familiaren berezitasun bat

M: Hori bakoitzarengandik irten beharreko gauza da. Hori bai, etxean ikusten dena erraz ikasten da.

- Ikasi beharreko dena dakizue?

E: Ez. Gauza berriak egiten saiatu behar gara beti, horretarako ordu asko sartuz. Ni oraindik nobata bat kontsideratzen naiz.

M: Autodidakta izatea oso garrantzitsua da, oinarri sendo bat lortu eta gero norberaren artea garatzeko.

- Zuen lehen erakusketa da. Zergatik batera?

M: Elkari animoak eman genion. Erakusketa berezia irten da dibersidade handia duelako. Nahasketa polita irten da. Jendeak koadroak baino zerbait gehiago ikustea eskertzen du.

aste gazte

■ DIPUTAZIOAREN UDAKO EKINTZAK

• 18-29 urte bitartekoentzat udarako eskaintza bereziak: kirol abentura Murillo de Gállego eta Guaran (Huesca), Léridan, mendi trabesiak Aigues Tortesgo parkean, Iparraldea mendi bizikletaz eta egonaldiak Seguran. Izena emateko epea: ekainaren 2tik 27a arte.

■ AUZOLANDEGIAK

• SCI Madrilgo elkarateak, atzerrian antolatu dituzten auzolandegiak, 18 urtetik gorakoentzat. Epea: maiatzaren 5ean hasita, plazak bete arte.

• Rezikleta Bilboko elkarateak, erreziklaia lantzat hartuta auzolandegiak antolatu dituzten Urdaibaiko erretserban, uztailaren 5etik 20a arte.

■ BEKAK

• Historia, arkeologia eta arte ederren espainiar akademiak Erroman duen egoitzan proiektuak aurrera eramateko bekak. Epea: ekainak 15.

■ LANA

• Arrasateko Udalak lanpostu batzuk bete nahi ditu: euskaltegiko irakasle esperientziadunak, euskaltegiko praktikazko irakasleak, udal irrati-laguntzailea, udal liburutegiko laguntzailea eta ingurugiro eskolako laguntzailea. Epea: ekainak 2.

• Oretako Udalak, ingurugiro teknikari bat behar du. Epea: ekainak 3.

• Igantziko Udalak, administrari laguntzaile bat behar du. Epea: ekainak 5.

• Trapagarango Udalak, bi famili hezitzaile behar ditu. Epea: ekainak 6.

Informazio gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 77 00 65

“Txikitan aitak koaderno bana eman eta marrazten irakasten zigun”

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Etxebizitza salgai Torrepe dorrean. Tel.: 79 61 68.

• Larrea plazan etxebizitza salgai. Tel.: 79 26 34.

• Laredon apartamentua salgai. 4. solairuan eta igogailuaz. Prezioa: 6.500.000. Tel.: 76 44 34.

• Okendo kalean etxebizitza salgai. Tel.: 79 86 22.

• Erdialdean etxe handia salgai. Tel.: 79 42 13.

2. Erosi

• Deba Garajan 60 m²ko apartamentua erosi nuke. Dei egin gauez. Tel.: 79 23 60.

3. Errentan emateko

• Ezkaray-en pisua alokatzen da uztaileta eta irailean. Oso ondo prestaturako urbanizazio baten (pizina, tenisa, umeendako tokia...) Tel.: 79 31 56.

• Peñiscolan pisua alokatzen da uztailean eta abuztuan. Tel.: 77 05 88.

• Laredon apartamentua alokatzen da uztailean. Hondartza ondoan dago. Tel.: 79 52 80.

• Torrevejan apartamentua alokatzen da. Hondartzatik 150 m.ra. 2 gela, saloia eta jangela. Tel.: 77 03 85.

• Buhardila alokagai Zarautzen, San Juanetatik irailara arte. 6. solairua, igogailuaz. Hondartzatik gertu. Tel.: 79 54 93 eta 13 07 90.

• Zarautzen udan pisua alokatzen da. Alde-zaharreen kokatuta. Tel.: (945) 44 51 14.

4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza alokatuko nuke ahal balditz Zigarrolan. Tel.: 79 02 66. Igo-ne.

• Arrasaten pisu bila nabil. Tel.: 79 96 10. Maritxu.

• Etxea edo logela bat alokatuko nuke Leintz bailaran. Tel.: 745 41 03 03. Lan ordutan. Amaia.

• Hiru logeladun pisua behar dugu. Tel.: 28 03 16.

• Pisu handi bat behar da 97-98 ikasurterako. (94) 460 86 48. Lan ordue-

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

tan.

• Pisu txiki bat alokatuko genuke San Andres edo Musakola inguruan. Iraitetik aurrera. Tel.: 79 54 46 Goizetan. Eider edo Errukane.

5. Etxe konpartituak

• Pisu konpartitu baten gela bat nahi dut. Tel.: 79 96 10.

• Konpartitzeko edo alokatzeko etxe bila nabil. Tel.: 79 99 82. Iñaki. Gauez.

• Aramaion pisua osatzeko lagun bat behar da. Tel.: 77 04 98. Eguerdietan. Irene.

• Datorren kurtsoan pisua konpartitu nahiko nuke Leioan. Tel.: 79 38 13. Leire.

GARAJEAK

7. Saldu

• Roneoko etxeetako lehenengo solairuan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

• Zarugalde kalean garaje itxia salgai. Tel.: 79 63 22.

9. Errentan emateko

• Roneoko etxeetan garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

• Aldaigainen garajea alokatzen da. Tel.: 79 51 93.

• Garajea errentan emateko daukat Kontzeziñon. Tel.: 79 55 20.

LOKALAK

12. Saldu

• Musakolako kiroldegia ondoan lokal komertziala salgai. 76 m². 8.300.000 pta. Negoziagarriak. Tel.: 79 59 75.

• Kalealdean, baina Zarugalde tik gertu lokala salgai. 100 m². Bi solairu. Tel.: 79 07 24.

• Lokala saldu edo alokatu egiten da. Ura eta argindarrarekin. Tel.: 79 76 95.

14. Errentan emateko

• Erdigunean lokal komertziala saldu edo errentan ematen da. Ferrerias kalean, 72 m². Tel.: 79 97 86.

• Erdiko kaleko 48. zenbakian edozein negozio jartzeko aproposa den lokala alokatzen da. Tel.: 79 18 00.

LANA

17. Eskaintzak

• Emakume gaztea gertu etxea, atarteak edo bulegoan garbitzeko. Tel.: 79 59 75. Agus.

• Esperientziadun neska etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 945 - 44 52 79.

• Bulegotan, dendetan eta etxeko lanetan esperientziadun emakumea goizez lan egiteko prest. Tel.: 76 82 12.

• Neska prest etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 96 10. Maritxu.

• Esperientziadun neska umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 79 31 44. Gauez.

• Andra euskalduna arratsaldetan etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona edadetuak zaintzeko gertu. Tel.: 79 07 73.

• Esperientziadun emakume euskaldunak pertsona nagusiak zainduke litzuke. Margari. Tel.: 77 04 60.

• Neska gertu aterteak garbitu eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 97 81.

• Lanak euskaratu edo ordenagailuz pasatzen dira. Tel.: 79 74 76.

• Neska euskaldunak dendaren baten lan egin edo umeak zainduko litzuke. Tel.: 79 74 76.

18. Eskaerak

• Kamareroa behar da. Tel.: 79 68 57.

• Emakumea behar da igandetan lan egiteko. Autoa beharrezkoa da. Tel.: 79 47 85.

• FP2 duen mutila elektrizitatean eta elektronikan aditua dena behar da. Tel.: 79 06 48.

• Taberna lanetarako neska euskalduna behar dugu. Tel.: (945) 44 50 86.

• Esperientziadun pertsona bat behar da dekorazio denda baten lan egiteko. Tel.: 77 11 48. Denda ordue-tan.

• Gidatzeko kameta duen pertsona behar dugu ume txiki bat zaintzeko. Tel.: 58 50 40. Maite edo Jabi.

• Ordenadorez lan bat pasatzeko pertsona bat behar da. Tel.: 79 93 62. Gaueko 8.30etatik aurrera.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

- ESOk klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. Esperientzia. Tel.: 79 56 78.
- Magisteritza daukan neska batek klase partikularrak emango lituzke. Tel.: 77 10 21. Maite.

21. Eskaerak

- Elektronika analogikoko klase partikularrak behar ditut. Tel.: 79 41 25. Aitor.
- Uztailean, 3. BUPeko matematika klase partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 79 65 31. Maite.

MOTORRA

23. Saldu

- Bultaco Cross 350 motorra salgai. Tel.: 79 25 73. Ibon.
- Renault 5 GTL salgai. SS-P. Egoera ona. Tel.: 79 81 35 / 77 93 30.

• Opel Corsa 1.3 GT salgai. BI-AL. Tel.: 620 19 02. Arratsalde. Txomin.

• Cajiga 125 cc motor berria salgai. 300.000 pta. Tel.: 79 26 34.

• Aprilia Clinver trial motorra salgai. 250 c.c. ia berria (1.300 km). Tel.: (945) 44 51 14.

• Kawasaki Vulkan motorra salgai. Tel.: 77 00 62. Arratsaldeko 3tatik aurrera.

• Errepideko aluminiozko bizikleta 55 neurriko salgai. Kuadroa Columby eta Campagnolo osagaiak. Prezioa: 45.000 pta. Tel.: 79 60 85.

• Ford Orion salgai. SS-AF. 87.000 km. Egoera onean. Tel.: 79 96 16. Gaueko 9etatik aurrera. Iban.

• Adria 410 TD karabana salgai. Uda eta negurako guztiz jantzita dago. Tel.: 79 66 09.

bat, egurrezko jarleku luze bat, eta bi egurrezko kutxa, denak egur onetan eginak. Tel.: 79 65 31 gaueko 10etatik 12ak arte. Astelehenetan ezik.

• Idazmakina mahai eta guzti salgai. Tel.: 79 65 31 gaueko 10etatik 12ak arte. Astelehenetan ezik.

• Errepideko bizikleta salgai. 55 tailakoa. Columbus Cortine kuadroa, Mavic gurpilak eta Campagnolo piezak. 45.000 pta. Tel.: 79 60 81.

• Collie txakurra salgai. Tel.: 79 06 98. Joseba.

• Siberian Husky txakurkumeak salgai. Pedigri bikaina eta prezio ezinhobean. Tel.: 79 59 85.

• Auto karabana salgai. 3,90 m. 5 lagunendako tokia. Merkea. Tel.: 79 91 21. Lanegunetan, gauez.

• Estreinatu barik dagoen sofa-ohea salgai. 120 zm. Prezio ona. Tel.: 79 14 84.

27. Erosi

• Bigarren eskuko argazkiak proiektatorea erosiko nuke. Tel.: 79 55 88.

• Bigarren eskuko baxua erosiko nuke, ahal dela anplifikagailu eta guzti. Tel.: 79 96 31.

DENETARIK

26. Saldu

• Salgai: Rueka bat, egurrezko arka tailatu bat, egurrezko seaska tailatu

29. Eman

• Komuneko osagarriak emateko pres nago. Tel.: 76 44 34.

31. Galdu

• Eguzkitarako betaurreko graduatuak galdu zaizkit. Tel.: 79 40 09. Gaez.

• Aldaigainen katua galdu da, emea da, grisa eta geige kolorekoa. Tel.: 79 15 00.

• Levis kazadora bat galdu nuen San Andresko jaietan Lennon tabernan. Tel.: 79 01 07.

• BH markako umeen bizikleta bat galdu dut. Larroxa da. Tel.: 79 19 92.

• Erijoia galdu zitzaidan Musakolako jaietan. Zapatu arratsaldean. Radiant markakoa. Tel.: 79 69 69.

• Anbar motako zilarrezko pultsera galdu nuen Musakolako jaietan. Tel.: 79 81 16.

• Urrezko kataia galdu nuen Zaldibar inguruan. Amabirjina baten irudia dauka. Tel.: 77 13 30.



PARDO estetika zentrua

- DEPILAZIO PROGRESIBOA
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA (BLEND ETA FLASH METODOA)
- SOLARIUMA DUTXAREKIN (11 SESIO 12.000 pta.)

AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

SESIOA: 3.300 pta.

11 sesioko tratamenduagatik sesio bat eta manikura doan!

- Drainaketa linfatikoa.
- Erreafirmatzailea.
- Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
- Antizeluliti murriztailea.
- Mantenimendua.


Iparagirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan
 ☎ 79 52 17 ARRASATE



UDAKO ORDUTEGIA
 Goizeko 9.30etatik
 arratsaldeko 7.30etara.
 Eguerdietan zabalik!

■ Mari Jose Gil

KORRIKALARIA



Berandu hasi zen korrika egiten, baina beterano mailan izugarriko garaipenak lortu ditu 56 urteko emakume honek. 93an Donostiako Maratoian munduko txapelduna izan zen. Bost urtetan Behobia-Donostiako lehen postua lortu du eta aurten Gipuzkoako Krosseko txapelduna izan da.

1. Zein da zure horoskopoa? Sagitario.
2. Sinestuna zara? Bai.
3. Animalia bihurtzekotan?
Katua.
4. Zure akats bat/gauza on bat? Asko/Konstantzia.
5. Zerk lotsarazten zaitu? Gauza askok.
6. Amets bat? Bakea.
7. Zer kenduko zenuke mundutik? Miseria.
8. Gertakizun historiko bat? Ikurriñaren legalizazioa.
9. Nor miresten duzu?
Martin Fiz.
10. Zeri diozu beldurra?
Alzheimerrari eta minbiziari.
11. Zertaz damutzen zara? Ezertaz.
12. Negar egin duzun azken aldia?
Nire aita gogoratu nuen azken aldian.
13. Zer falta zaito Arrasateri? Atletismo pista bat.
14. Eta zuri? Ezer ere ez.
15. Lanbidez aldatzekotan? Erizain.
16. Arrasateko gustoko toki bat?
Iturripe.
17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Gauza asko.
18. Zein egunkari irakurtzen duzu? *El Diario Vasco*.
19. Gustoko janari bat? Pastelak.
20. Liburu on bat? Los hijos de Torremolinos.
21. Filmerik onena/txarrena? *Lo que el viento se llevó*/ asko.
22. Musika talderik onena/txarrena? Joan Manuel Serrat/El Fary.
23. Telebistako programarik onena/txarrena? *Moros y Cristianos*/El Semáforo.
24. Egin dizuten oparirik politena?
Lore sorta bat.
25. Denbora librea zertan pasatzen duzu? Ikasten eta kirola egiten.
26. Oporretarako toki bat? Costa del Sol.
27. Etxeko lanik gorrotagarriena?
Hautsa kentzea.
28. Gomendio bat? Zuhurra izan.
29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Bai.
30. 200 milioi irabaziz gero? Nire seme alaben artean banatuko nituzke.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

Euskerien Txokoa

Emon eta kendu

Baten batek baino gehiagok esango dau, belarri fiñe daukogula, baina behin eta barrero entzun izan dot horixe beroi. Bakoi-tzari berea esaten da, eta zeozer esan gura dogunean, zehatz eta ondo joku-tu behar dogu.

Horreik ebalu barik, zeintzuk ebalu, baina? "Argixe ixotu (izetu) eta argixe itsungi (amatau, emendau)". Batuan argixe piztu / itzali ebaltzen diez, batez be; baina amata-tu, iraungi, emen-datatu be ebalu daitezke, batua ez dau euskal-kiaren gainetik, euskal-kiatik sortu behar dogun zeozer da eta.

Gure euskeran, batez be, itzungi eta ixotu ebalten die; Antzuola, Bergara, Plaentzia aldien "emendau".

Hortaz, badakizue: emon zeo-

zer, kendu zeozer... baina argixe ixotu, itzungi; telebista, irratia, ordenadorea... itzungi, ixotu... / amata-tu, emendatu, itzali - piztu, iziotu.

Hurrengo baten, gentilizioa aztertuko dogu, -AR ala -TAR zein ebalu.

Adibidez: aramaior ala aramaiotar (azken hori txarto dau). Hasi pentsetan zelan esaten duzun: Bergarakoa, bergarar ala bergatar... jarraitu.... Arrasate,

Aretxabaleta, Uda-la, Bedoña, Garagar-tza, Araba, Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia, Eloorrio, Abadiño, Durango, Bilbo, Gasteiz, Oñati, Legazpi, Tolosa, Donostia, Baiona, Lapurdi, Zuberoa.

Karmelo Uribarren



Euskaldunak eta Osasuna

Idarrak

Europa hegoaldean sortutako landare da berez, behintzat ezaguna da greziarrek eta erromatarrek erabiltzen zutela. Itxura baten, Mediterraneo aldean landatzen zen garia, garagarra eta arto txikiarekin batera. Negurako oso jaki estimatua izaten zen, lehortuta ere jan daiteke eta. Erdi-Aroan hasi ei ziren gordinik jaten.

Ortuetan erein eta etortzen da idarra, A bitaminatan oso aberatsa. Gorantz egin dezan, maki-la tentetuekin laguntzen zaio. Era horretan gainera, behin heltzen denean, batzeko askoz ere eroso-agoa izaten da. Azalik ez duenean, metal gatzetan aberatsa da idarra, eta lentejak beste fosforo badu. Gordinik, lehen esan moduan, aberatsa da bitaminatan; pure eginda, egokia osasunerako, batez ere anemiari aurre egiteko.



Parques y Jardines

**Parke eta lorategien
sorkuntza.**

**Lorazaintzako
mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza
hidroereintzaz.**




Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

■ Horoskopoa

- **Aries** Urduri jartzen dituzu inguruko guztiak.
- **Taurus** Kafe bat hartu ea espabilatzen zaren behingoz.
- **Gemini** Familiartekoek ematen dizuten aholkuei kasu egin.
- **Cancer** Eztarriko mina? Normala, hainbeste hitz eginda.
- **Leo** Udaberriko lore fresko baten itxura hartzen ari zara.
- **Virgo** Oso sexy zabilta azkenaldian, beraz kontuz.
- **Libra** Bildots aurpegi horrekin edonor engainatzen duzu.
- **Scorpio** Masailak gorriegi jartzen zaizkizu dantzan hastean.
- **Sagitarium** Ahoa zabaltzean otsoaren antz izugarria izaten duzu.
- **Capricorn** Zure pentsamenduekin edonor zoraturako litzateke.
- **Aquarius** Galduta ikusten zaizu azkenaldian. Iparra bilatu.
- **Piscis** Hain zara gaiztoa batzuetan.... Alda zaitetz.

■ Gurutzegrama



JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1. Edurne, San Frantzisko Xabier ikastolako zuzendariaren izena. 9. Zerbait lortzeko egiten den ekintza-multzoa. 10. (Ald.) Zapata. 11. Musika-eskalako hirugarren nota. 12. Bostgarren zeinu zodiakala. 13. (Ald.) Ahalmen edo indarrik eza. 15. Opera Lagunen Bilboko Elkarte. 17. (Ald.) Atzizki partitiboa. 18. Presaka eta korrika. 20. Egia maite duena.

Bertikalak 1. Beti eguzki aldera begiratzen duen landarea, lore hori handiak ditu. 2. Biblian Jakoben emaztea. 3. (Ald.) Bakoi-tzari bost. 4. Bizkaiko bi mendiren izena. 5. Sozietate Anonimoaren siglak. 6. Kimikan aditua. 7. Hitz edo izen baten hasierako letra. 8. Sodioa. 14. Iratzaririk, bereziki sentimenak. 16. Euskal Iraultzarako Alderdia. 19. *Atzoko* kontsonanteak.

Horizontalak: 1. Erauskin, 9. Kanpaina, 10. (Ald.) Oski, 11. Mi, 12. Leo, 13. (Ald.) Ezin, 15. OLBE, 17. (Ald.) Rik, 18. Itoan, 20. Egiazale.
Bertikalak: 1. Eklitor, 2. Rakel, 3. (Ald.) Bosna, 4. Upo, 5. SA, 6. Kimikoa, 7. Inizial, 8. Na, 14. Erne, 16. EIA, 19. Tz.



ARGÍ PLASTIC

Tailerra eta bulegoa: Zigorrola, 1-8 pabiloia
Tel.: 77 11 30 • ARRASATE



- PVC eta aluminioan egindako leihoak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean.
- Zerbitzu profesionalena.





Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik!



Baztarrak Nahasketan irratsaloaren egileak.

Baztarrak Nahasketan programa entzuteko azken aukera

San Viator Ikastolako zortzi ikasle aritu dira jo eta ke Arrasateko baztarrak nahasketan. Izan ere, horrela du izena Arrasate Irratian egiten duten programak. Saioan, gai ezberdinen inguruan egin-

dako mahai inguruak, elkarriketak, liburuei buruzko gomendioak eta abesti dedikatuak entzuteko aukera izaten da. Orain arte hiru programa egin dituzte eta dagoeneko, ondo moldatzen dira

mikro aurrean. Datorren astelehenean, ekainak 2, emitituko dute azkena. Beraz, badakitzue, piztu Arrasate Irratia gaueko 9etan. Neska mutil hauek, baztar denak nahasten dituzte eta!

Mexiko eta Guatemala Munduari Bueltakan

Mexikora eta Guatemalara egin zuen bidaia kontatuko du *Munduari Bueltaka* saioan Karmelo Uribarren arrasatearrak.

Mexikoko Isla Mujeresen hasi zuen bidaia arrasatearrak, eta handik Meridara eta Palenkera joan zen. Guatemalan, berriz, Antigua eta Atitlan lakua bisitatu zituen besteak beste.

Beti egiten den moduan, Karmelok atera zituen diadipositibak ikusgai izango dira.

Munduari Bueltaka asteazkenetan emititzen da, 9.30etan.



Karmelo Uribarren.

■ ATBko asteko programazioa

30 Ostirala	2 Astelehena	3 Asteartea	4 Asteazkena	5 Osteguna	6 Ostirala
20/20.30/21.00 Berriak	13.30 Astebete (Errep.)	13.30 Mondrasport (Errep.)	13.30 Burua Astinduz (Errep.)	13.30 Munduari Bueltaka (Errep.)	13.30 Kukaratxa Motel (Errep.)
21.30 Astebete. Astean jasotako albisteen errepasoa	20/20.30/21.00 Berriak	20/20.30/21.00 Berriak	20/20.30 Berriak	19.15 Kukaratxa Motel	20/20.30/21.00 Berriak
	21.30 Mondrasport	21.30 Burua Astinduz. Iskanbila taldeari buruzko erreportaia	21.00 Munduari Bueltaka. Mexiko eta Guatemala	20/20.30/21.00 Berriak	21.30 Astebete
				21.30 Kukaratxa Motel	

Aldi//bi

NISSAN


Aldibi Autoak, S.A

Zigorrola, 1
20500 ARRASATE
Tel.: 71 20 02 • Faxa: 79 65 65



Zatoz eta ezagutu gaitzazu!

Hemen zure amets guztiak egon daitezke.



Volvo

Auto Suecia, S.A.



Mercedes

Izar Autoak, S.A.



Hyundai

Musakola Autoak, S.A.



Mazda

Musakola Autoak, S.A.



Chrysler

Co-Car, S.A.



Nissan

Musakola Autoak, S.A.



Pedro Biteri ekarri genuen gogora joan den aste-ko argazki zaharrean. Aste honetan, berriz, Biteri eskolaren irudi bat.

Ezkerretik hasita eta goian: neskak (ezezaguna), Mateo Murua, Esteban Altuna, Kar-

los Ginart, Felix Garai, Mariano Montiano (maisua), Kruz Ugarte, Maximo Garate, Esteban Etxebarria, Juanito Azkoga "pintorea".

Erdiko ilaran: Angel Garai "Zeleta", Imanol Zeziaga "Divino", Frantzisko Bereziabar "Pako", Rufino Ugarte "Goiru", Satur Vitoria, Fortun

Zeziaga "Hermoxo", Txomin Aranburu, Pedro Garai, eta Jose Mari Arriaran.

Beheko ilaran: (ezezaguna), Karlos Iraeta, Jose Aranburu "Sastrea", Patri Egidazu, Sabin Maiztegi, Iñaki Agiriano, eta Antonio Uribetxeberria.

Bukatzeko, aipatu behar hormaren kontra dagoena

Madinabeitia "Malape" dela; eta Maisuaren atzean dagoen neskak, bere alaba, Terete Montiano.

Urtea: 1931

Argazkia: Felix Garai

Informazioa: Josu Otadui



HIZKUNTZAK-IDIOMAS

Udako ikastaroak eta erreperazio ikastaroak.

ALEMANA • INGELESA • FRANTSESA

UDAKO IKASTAROAK, Ingalaterran, Irlandan, Kanadan, familia batekin elkarbizitzen. 13tik 18ra bitarteko gazteentzat.

LAN ESPERIENTZIA, Ingalaterran, enpresatan, lanean eta familia batekin elkarbizitzen.

UDALEKUAK, 10 edo 15 egunekoak, Brinkolan. 11tik 15 urte-ara arteko umeentzat.

Eta gainera gure **Mediateka** zabalik izango duzu, Multimedia materiala, softwarea, eta abar. **DOHAINIK**.

Araba Etorbidea, 4 • ARRASATE
Tel.: 71 60 00

Olakua, 14 • OÑATI
Tel.: 71 20 55

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 beheha Tel.: 79 22 55 79 14 25

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

Errealitate
bihurtzen diren
ilusioak...